

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

SAKANA ETA LARRAUN-LEITZALDEKO Lurralde mahaia

Lekua: Irurtzungo Kultur Etxea.

Eguna: maiatzaren 25a

Ordua: 18:00etatik 20:10era.

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborroa aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Sakana eta Larraun-Leitzaldeko lurralde-mahaiaren helburua Nafarroako Lurralde Estrategiaren zirriborroa aurkeztea eta horri buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea zen.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborroaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk ere daudela. Fase honetan, zirriborroa da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborroa eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Landa eremu eta bizitzarekiko sentsibilitatea egotea oso garrantzitsua dela adierazi da. Horretarako, enplegua sortzea garrantzitsua da, baina bizitzen geratzeko bizi-kalitateak ere eragina du: zerbitzu publikoak, osasuna, mendeko pertsonen eta 0-3 urteko haurren zaintza. Araudi eta politika guztiak Iruñetik datoz, bertako irizpideekin eta landa munduarekin zerikusirik ez dute, oso irizpide hiritarrak dira. Halaber, esan da osasun-zerbitzuek atzera egin dutela, eta irizpide ekonomikoak lehenesten direla beste batzuen aldean. Benetan beste ikuspegi bat eman behar bada, landatartasunaren irizpidea politika guztiei aplikatu behar zaie.
- Zirriborro koherentea da gaurko egoerarekin, trantsizio-prozesu batean gaudelako, eta zirriborroak jasotzen du hori. Baina udalen egunerokotasunean gehien sufriarazten duten gauzetako bat departamentuen arteko koordinazio eza eta zeharkako ikuspeirik ez izatea. Beste ikuspegi mota bat funtsezkoa dela esan da, landa-esparrutik gehiago egina. Gaur egun, hirigintzak ez du kontuan hartzen landa-eremua, eta ez du erantzuten haren beharren aurrean. Izapideak gehiegizkoak dira eta, askotan, aukerak aprobetxatzea eragozten dute.
- Zalantza hau adierazi da: ea planteatu den zirriborroan hirigintza-izapideetarako burokrazia arintzea oso garrantzitsua dela. Ez da posible herritar batek eta eraikuntza-enpresa batek izapide berberak izatea.
- Departamentuen arteko zeharkakotasuna lantzea garrantzitsua dela adierazi da. Asko dago egiteko zeharkakotasunaren gaiarekin; izan ere, irizpide komunik ez dagoenez, eskualdeko buruen eta kontzejuen arteko arrakala are handiagoa da, baita udalerrri edo eskualde bakoitzaren barruan ere. Estatistikak lehenesten dira, eta

horietan ez dira udalerrri txikiak ateratzen askotan. Horregatik, zeharkako irizpideak funtsezkoak dira landa-eremurako.

- Esan da eskualdeak erronken konponbidearen partetzat hartu behar dira; Sakanaren kasuan, erabateko zentzua dtute.
- Garrantzitsua da gogoeta egitea egin daitezkeen 12 lurralde-planen mugaketari buruz. Garrantzia nahikoa eman zaio tokian tokiko ikuspegiari, behetik gora, landartasunetik? Izan ere, benetan desberdinak diren eskualdeak daude, eta eskualde horiek LP propioa izateko adina nortasun/definizio dute.